BIZITEGI ERAIKINA — SAN MARTIN 56

D MAILA





Egilea eta data: Jose Maria Mujica; 1884

Deskribapena

Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina eta bost goi oin dituena, azkena mantsardatua (eraikuntzako jatorrizko proiektuaren berehalako aldaketa gisa), gehi 1933ko jasodura atzeraeman bat mantsardaren gainean. Harlanduzko fatxada behe oinean, eta entokatua eta baoen azpadurak nabarmenduta goi oinetan. Hormigoizko begiratokia alakan (1926-1947). Jatorrizko proiektu komuna Blas de Lezo 4rekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. goi oina (mantsardatua), eta 6. goi oina (atzeraemana).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.